

9/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa (BAO Uztailaren 19koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, ekainaren 30eko Osoko Bilkuran, 9/89 Araua onetsi dute, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitaratu dadila agindu dut. Horren berri eman dut, aplikatu behar zaien herritar, norbanako eta agintariek hura bete eta betearazi dezaten.

9/89 FORU ARAUA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA.

HITZAURREA

Ekonomia-Ituneak Kondaira Lurraldeetako Erakunde agintedunei, zerga-erregimena zaintzeko, jartzeko eta araupetzeko, aitortzen dien aginpidearen indarrez, Foru Arau honek Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga araupetu nahi du.

Toki Ogasunei buruzko Foru Arauak sortu du zerga hau, Udalerrien baliabide-sistema berri bat sortzeko asmotan, hots, ikuspegi materialetik, finantz-autonomia eta nahikotasuneko erizpideak gauzatzeko bide eman dezan sistema bat.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga nahitaezko tributu moduan eratzen da, eta hori indarrean jartzeak Hirilur eta Landalur eta Abere-Kontribuziorako Zerga, eta Orubeen gaineko Zerga ere, ezabatzea dakar.

1. artikulua. Zergaren izaera.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ondasunen gaineko zuzeneko zerga da eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako hirilurreko eta landalurreko ondasun higiezinaren balioa kargatzen du foru arau honetan ezarritakoari lotuz.

2. artikulua. Zerga-egitatea eta ordaindu beharrik ez dagoen balizkoak.

Bat. Zerga honen zerga-egitatea landalurreko eta hirilurreko ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

- a) Ondasun higiezinaren edo haiek lotuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.
- b) Lurrazal-eskubide erreala.
- c) Gozamen-eskubide erreala.
- d) Jabetza-eskubidea.

Bi. Aurreko idatz-zatian azaldutako zerga-egitateetako bat gertatuz gero, higiezina modalitate horren zioz egongo da Zergaren kargapean eta beste guztien zioz ez, ezarritako hurrenkerari jarraituz.

Hiru. Zerga honen ondoretarako, landalurreko ondasun higiezinak eta hirilurrekoak 3. eta 4. artikuluetan eta hurrengoetan definitu dira.

Lau. Higiezin bat udal mugarte batean baino gehiagotan badago, Zergaren ondoretarako haietako bakoitzean bertan duen azaleraren zioz ordainduko du.

Bost. Jarraikoak ez daude Zergaren kargapean:

- a) Errepideak eta bideak eta herri jabariko itsasoaren eta lehorraren arteko ondasunak eta jabari hidraulikokoa, baldin eta denen aprobetxamendurako eta doakoak badira.
- b) Udalen jabetzako ondasun higiezin hauek:
 - Herritarren erabilerarako herri jabarikoak.
 - Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati loturiko herri jabarikoak, gainontzekoei kontraprestazioa tarteko dela lagatutakoa izan ezik.
 - Ondare ondasunak, gainontzekoei kontraprestazioa tarteko dela lagatutakoa izan ezik.

3. artikulua. Hiri-ondasun higiezinak.

Zerga honen ondorioetarako, hauexek dira hiri-ondasun higiezinak:

- a) Lurzorua, eta honako hau hartuko da lurzorutzat:

Hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua.

Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatutako lurzorua.

Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe gisa sailkatutako lurzorua, sektorizatze-plana onartzen den unetik aurrera.

Hauek dituzten lurrak: bide zolatuak edo espaloi-zintarriak, eta, gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa.

Hiri-eraikuntzek okupatutako lurzorua.

Batetik, nekazaritza arloko legedian xedatutakoaren kontra zatikatzen diren lurzoruak, baldin eta zatikatzeko horrek nekazaritza-erabilera baliogabetzen badu; bestetik, hiri-eraikuntzekin duten loturagatik erabilera hori dagoeneko baliogabetuta dutenak; dena dela, kasu horietako batek ere ez du ekarri behar lurzoruon landa-izaeraren inolako aldaketarik zerga honen ondorioak ez diren beste ondorioetarako.

- b) Hiri-eraikuntzak, eta honako hauek hartuko dira horrelakotzat:

- Eraikinak; direnak direla horiek eraikitzeke erabili diren elementuak; eraikinok dauden tokiak; eraiki direneko lurzoru mota eta haien erabilera, are eraiki diren moduagatik garraiagarriak direnean eta eraikita dauden lurra eraikuntzaren jabearena ez denean ere; eta eraikintzat jo daitezkeen merkataritza eta industriako instalazioak: eustarriak, tankeak eta zamaguneak, baina baldin eta eraikuntza horiek ez badaude beren-beregi landa-ondasun legez sailkatuta hurrengo artikuluan.
- Urbanizazio- eta hobekuntza-obra, esaterako lur-berdinketak eta aterpe gabeko guneak erabiltzeko egiten direnak. Hain zuzen ere, hauek hartuko dira horrelakotzat: azoka legez erabiltzeko barrunbeak, zerupeko gordailutegiak; presak, urjauziak eta urtegiak, are ohea ere; kiroletan jarduteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko guneak, baina baldin eta eraikuntza horiek ez badaude beren-beregi landa-ondasun legez sailkatuta hurrengo artikuluan.
- Hurrengo artikuluan landa-ondasun legez beren-beregi sailkatuta ez dauden gainerako eraikuntzak.

4. artikulua. Landa-ondasun higiezinak.

Zerga honen ondorioetarako, hauexek dira landa-ondasun higiezinak:

- a) Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera hiri-ondasun ez diren lurrak.
- b) Landa-eraikuntzak, eta horrelakotzat hartzen dira, hain zuzen, landa-lurretan egonik nekazaritza, abeltzaintza, arrain-hazkuntza edo basogintzako jardueren garapenaren osagai diren eraikinak eta instalazioak. Aurrekoa gorabehera, horrelako jarduerak garatzeari lotuta dauden eraikinak hiri-ondasun higiezintzat hartuko dira, baldin eta eraikinok bizitegi- edo turismo-erabilera duen elementuren bat badute.

Zerga honen ondorioetarako, inoiz ere ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzako ustategietan erabiltzen diren estalpe edo aterpe txikiak, baldin eta, haiek eraikitze material arin eta iraungaitzak erabili direnez, eraikuntzok bakarrik erabil badaitezke lurra hobeto aprobetxatzeko, soroak babesteko, abereak aldi batez edukitzeko edo loturik dauden jardueren erabiltzen diren tresna eta lanabesak gordetzeko. Halaber, zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko landa-lurretan egiten diren obra eta hobekuntzak, baldin eta lurron balioaren osagai banaezinak badira.

5. artikulua. Salbuespenak.

Bat. Jarraiko higiezinak daude salbuetsita:

- a) Estatuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Bizkaiko Lurralde Historikoarenak edo bertako toki erakundeek, nazio defentsarako, hiritarren segurtasunerako eta irakaskuntza eta presolekuen zerbitzurako badira.
- b) Erkidegoaren ondasunak eta denen esku dauden auzo-mendiak.
- c) Hazkunde moteleko espeziez basoberritu diren titulartasun publiko edo pribatuko mendiak.

Salbuespen hau otsailaren 2ko 152/1996 Errege Dekretuko 1., 2. eta 3. eranskinetan aipatu diren hazkunde moteleko espezieentzat da, horien aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoak direnean; halaber, zuhaitzen dentsitatea espezie horri dagokion arrunta edo ohikoa denean, salbuespena espezie horiek hartzen duten baso sailentzat ere bada.

Era berean, aurreko lerrokadan adierazi ez diren basoak, korporazioek, erakundeek eta norbanakoek zuhaitz berriak sartzten dituzten finken zatiei dagokienez, eta basogintzako administrazioak onesten dituen antolamendu-proiektuei edo plan teknikoei loturiko zuhaitziak hazten ari diren lurzatiak. Letra honetan ezarritako salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskabidea egiten den zergaldiaren hurrengotik zenbaturik.

- d) Eliza Katolikoarenak, Estatuaren eta Sede Santuaren arteko 1979ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoei buruzko Akordioan aurrikusitakoaren arabera.
- e) Eliza Katolikoaz beste elkarte konfesionalenak, baldin eta elkarteok legez aintzatetsita badaude, Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan aipatuta dagoen lankidetzahitzarmenetatik datorrenaren arabera, akordio egokiari loturik.
- f) Espainiako Gurutze Gorriarenak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.
- g) Atzerriko gobernuenak, haien ordezkari diplomatikoei edo kontsulatuakoei, edo haien erakunde ofizialei erabiltzeko direnean, baldin eta elkarrekikotasuna badago edo nazioarteko indarreko hitzarmenekin bat badatoz.

- h) Nazioarteko indarreko hitzarmenak direla bide salbuets daitezkeen organismo edo erakundeenak.
- i) Trenbideek atzemandako lurra eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira. Honenbestez, ez daude salbuetsita ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta zabalaldiko establezimenduak, ez eta enpleguak bizi izateko egindako etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.
- j) Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 2. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran adierazitakoaren arabera monumentu diren ondasun higiezinak. Monumentu kalifikaturiko kultur ondasunak zein hala inbentariatuak daude salbuetsita, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Halaber, Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 2. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran aipatutako monumentu multzoaren barruan dauden ondasun higiezinak ere salbuetsi daude. Salbuespen honek uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen dituztela monumentu gisa kalifikatu edo inbentariatutako babes bereziko edo babes ertaineko araubideen barnean dauden ondasunak soilik hartuko ditu.

Orobat, salbuetsita daude Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 44. artikuluan ezarritakoaren arabera kultur ondasun adierazitako (kalifikatu zein inbentariatu) alde arkeologiko baten barruan daude ondasun higiezinak. Horrez gainera, higiezin batean esku-hartze arkeologikoa egin eta Eusko Jaurlaritzako sail egokiak ezartzen badu aurkitutako hondarrak bertan egon behar direla eta ezin direla ez ezabatu, ez beste leku batera eraman, higiezin hori Zergatik salbuetsita egongo da.

- k) Hezkuntza hitzarmenei heldutako ikastetxe pribatuak, harik eta ikastetxe itundu izaera hori galdu arte.
- l) Gizarte jarduerak egiteko diren ondasun higiezinak, baldin eta delako salbuespen hori behar den udalarekin itundu bada.
- m) Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatearenak.

Bi. Ordenantza fiskaletan osasun zentro publikoen ondasunetarako hobaria ezar daiteke; horretarako, ondasunak zentroen xedeetarako erabili behar dira zuzenean. Salbuespen honen inguruko gainerako alderdiak, funtsezkoak zein erazkoak, ordenantza fiskalean ezarriko dira.

Hiru. Udalek, Zergaren kudeaketa eraginkorragoa eta merkeagoa izan dadin, ordenantza fiskalez ezarritako kopuru jakin bat gairatzen ez duen kuota likidoa duten landalurreko eta hirilurreko higiezinaren salbuespena ezar dezakete; hori dela eta, landalurrekoei dagokienez foru arau honetako 25. artikuluan 5. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuz sortzen den kuota har daiteke kontuan.

Udalen zerga-ordenantzek ez badute aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa ezartzen, zenbateko hori 6 eurokoa izango da.

6. artikulua. Subjektu pasiboa.

Bat. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak, bai eta ordenatzaile ahala baliatzearen zain daudela Zerga honen zerga-egitatea den eskubide baten titular diren jaraunspenak ere.

Bi. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuta ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkidearen arauari jarraituz. Udalek Zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo ez izan arren kontraprestazio baten bidez bere demaniazko edo ondare ondasunak erabiltzen dituztenei.

Halaber, zergadunaren ordezkioak besteri jasanaraz diezaieke bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera kuota likidotik dagokion zatia.

Hiru. Ondasunak pro indiviso badaude edo pertsona askorenak badira, Zergaren ondoretarako subjektu pasiboa haien erkidegoa izango da, identifikazio fiskaleko kodeari dagokion izendazioa aintzat hartuta.

Erkide, kide edo partaide bakoitzaren nortasuna eta partaidetza-kuota Higiezinaren Katastroan agertarazi behar dira denek elkar hartu eta erabaki ondoren berariaz eskatuz gero. Halaber, irabazpideko araubidean dauden ezkontideek esak dezakete Higiezinaren Katastroan ager dadila nortzuk diren.

7. artikulua. Titulartasunaren aldaketa.

Bat. Zerga honen zerga-egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada, dena delakoa kausa, eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 41. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondore hauetarako, notarioek eskualdatzen den higiezinari buruzko informazioari eskatu eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zioz hari loturiko ordaindu gabeko zorren berri emango die bertaratutakoei.

Bi. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako erakundeetako partaide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Katastroan hala ageri badira. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da, hala ere.

8. artikulua. Zerga-oinarria.

Bat. Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da.

Bi. Katastro-balioa higiezinaren balio fiskala da; Zerga Administrazioak objektiboki kalkulatu du Katastroan dauden datuez baliatuz. Horretarako merkatu-balioa hartzen da erreferentzia gisa; katastro-balioa ezin da izan hura baino handiagoa.

9. artikulua. Hirilurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa zehazteko irizpideak.

Bat. Hirilurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa zein den jakiteko, lurzoruaren balioa eta eraikuntzena batuko dira.

Bi. Lurzoruaren balioa kalkulatzeko, hura ukitzen duten hirigintzako inguruabarrak hartuko dira kontutan.

Hiru. Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikintzako inguruabarrak ezezik, non dauden, historikoak edo artistikoak direnez, zertarako erabiltzen diren edo zein xede duten eta beraien kalitatea ere hartuko dira kontutan, bai eta eraginik eduki dezakeen beste edozein faktore ere.

10. artikulua. Landalurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa.

Bat. Landalurreko ondasun higiezinaren katastro-balioa zein den jakiteko, lurraaren balioa eta eraikuntzena batuko dira.

Bi. Landalurreko balioa kalkulatzeko, arauz ezartzen den korritua, horrek benetan sortzen dituen errentak edo lurraaren emankortasunaren arabera sor ditzakeenak eta dauden soro edo aprobetxamenduak kapitalizatuko dira, haien katastro-ezaugarrien arabera.

Errentak kalkulatzeko, nekazaritzako ezaugarri homogenoak dituen alde edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo gasailak ikertuz lortzen diren datuak hartu ahal izango dira aintzat.

Idatz-zati honen ondoretarako, kontuan hartuko dira landalurretan egiten diren hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak izango direnak, eta, behar izanez gero, ekoizten hasi arteko urteen kopurua. Basogintzako ustiategiak dauden landalurrei dagokienez, zuhaitz berrien adina, zuhaitzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa hartuko dira kontuan.

Beti ere, kontutan hartuko da aprobetxamendua hobea izateko ekoizpide arruntak erabili beharra, baina ez apartekoak.

Hala ere, ustiategiaren izaerak edo udalerrriaren ezaugarriek benetako errenta edo sor litekeena zenbatekoa den jakitea eragozten dutenean, ondasunen katastro-balioa kalkulatu ahal izango da, barnean direla hobekuntza iraunkorrak eta baso berriak, kontuan harturik nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta haiek ukitzen dituzten gainerako inguruabarrak.

Hiru. Landalurreko eraikuntzen balioa kalkulatzeko, aurreko artikuluko 3. idatz-zatian ageri diren arauak aplikatuko dira, horretarako biderik ematen duten heinean

11. artikulua. Katastroa.

Bat. Higiezinaren Foru Katastroa Bizkaiko Lurralde Historikoko hirilurreko eta landalurreko jabetzaren inbentarioa eta erregistroa da; Beraren eraketa, mantenimendua eta berrikuspina Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoak dira, baina hala ere hark bere eginkizunak eskuordetu ahal ditu eta lankidetzaz hitzarmenak sina

ditzake toki erakundeekin eta korporazio publikoekin.

Bi. Katastro-balioak Higiezinaren Katastroetan dauden datuak oinarri harturik finkatuko dira.

Hiru. Landalurreko Higiezinaren Katastroan eta Hirilurreko Higiezinaren Katastroan landalurreko eta hirilurreko ondasun higiezinaren datuak eta deskripzioak daude; datuok azalaren, kokaeren, mugen, soroen edo aprobetxamenduen, kalitateen, balioen eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri ematen dute, hau da, lurralde-jabetza adierazten dute eta honen alderdi eta aplikazio guztiak azaltzen dituzte. Horrez gainera, hirilurreko ondasun higiezinaren identifikaziorako zenbaki finkoa ere agertarazi behar da.

Katastroko datu-basean dauden datuak egiazkotzat hartuko dira zergen arloko arautegi orokorrean adierazitakoari lotuz; hala ere, Jabetzaren Erregistroan dauden datuek ondoreko juridikoak izan ditzakete beste eremu batzuetan.

Lau. Foru arau honetan ezarritakoaren arabera zergapean dauden ondasun higiezinak behar bezala identifikaturik egon behar dira landalurreko eta hirilurreko higiezinaren katastroetan. Bakoitza bere erreferentzia eduki behar du katastroan: poligonoaren eta lurzatiaren aipamena, landalurreko ondasunak direnean, edo katastroko zenbaki finkoa, hirilurreko ondasunak direnean.

12. artikulua. Katastro-balioa finkatzea, berrikustea, aldatzea eta eguneratzea.

Bat. Katastro-balioa foru arau honetan ezarritakoaren arabera finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratu ahal dira.

Bi. Katastro-balioa finkatzea esaten zaio Administrazioak higiezin multzo baten katastro-balioa lehenengoz zehazteko egiten duen eragiketari. Horretarako foru arau honetako 13. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Hiru. Katastro-balioa berrikustea esaten zaio Administrazioak aldi-aldi multzo baten katastro-balioa zehazteari, lehendik ezarrita duela. Horretarako foru arau honetako 13. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Lau. Katastro-balioa aldatzea esaten zaio Administrazioak higiezin baten edo multzo baten katastro-balioa zehazteko, hirigintzako plangintza edo beste inguruabarren bat dela bide haren eta merkatu-balioaren artean diferentzia handia dagoenean, egiten duen eragiketari. Katastro-

balioa aldatzeko foru arau honetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera behar den prozedurari jarraitu behar zaio.

Bost. Katastro-balioa eguneratzea esaten zaio Foru Administrazioak haiek inflazioa dela eta zaharkiturik ez geratzeko koefiziente jakin batzuk aplikatuz egiten duen eragiketari. Foru agindu bidez aginduko da katastro-balioak koefizienteak aplikatuz eguneratzeko.

13. artikulua. Katastro-balioa finkatzeko eta berrikusteko prozedura.

Bat. Katastro-balioa finkatzeko eta berrikusteko prozeduran bi fase daude: lehenbizi, lurzoria zedarriztatu behar da, eta baliotxostenak prestatu eta onetsi behar dira; gero ondasun bakoitzari bere balioa ezarri behar zaio.

Bi. Balio-txostenetan hauek agerrarazi behar dira: irizpideak, balio-eremuak edo poligonoak, balorazio-arau teknikoak, dagokion lurzoriaren zedarriztapena, eta katastro-balioak finkatzeko behar diren gainerako elementu guztiak.

Onetsi aurretik, ukituriko udalak, edo udalek, nahitaez, baliotxostenari buruzko txosten ez-loteslea egin behar dute; hamabost egun natural izango dituzte horretarako.

Hiru. Balio-txostenak erabaki bidez onetsiko dira eta haiei buruzko ediktuek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, haietatik ateratzen diren katastro-balioek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurre-aurreko urtean; ediktuan adieraziko da nola eta zenbat denbora egongo den ikusgai - 15 egun natural, gutxienez.

Lau. Balio-txostenak jendaurrean jartzeko epea amaituta, txosten horien ondoriozko katastro-balio individualizatuak katastroko titularrei jakinarazi behar zaizkie, balio horiek ondorioak sortuko dituzten urtearen aurre-aurreko urtea amaitu baino lehen.

Jakinarazpena egin aurretik, Ogasun eta Finantza Sailak katastro- balioak eta haien arrazoitzea jakinaraziko dizkie katastroko titularrei, posta bidez eta informazio gisa baino ez.

Jakinarazpena modu hauetan egin daiteke: bitarteko elektronikoak erabiliz, katastroko titularra edo hark baimendutako pertsona bertaratuta, edo bitarteko ez-elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpen pertsonal eta zuzenaren bidez.

Katastro-balioak pertsonatuz jakinarazteko modua arauz erregulatuko da eta jakinarazpenak jasotzeko epe bat zehaztuko da; epe hori ezingo da inola ere hogeitaz egun natural baino laburragoa, kasuan kasuko iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta «Estatuko Boletín Ofizialean» (BOEn) argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Halaber, epe hori Bizkaiko Lurralde Historikoan eta Estatuan zabalkunde handiena duten egunkarietan ere argitaratuko da. Jakinarazpena jasotzeko dagoen epea amaituta ez bada jakinarazpenaren bila joan, katastro-balio berriak jakinarazitzat joko dira, ondorio guztietarako.

Katastroko titular berari dagozkion ondasun higiezinak badira, katastro-balio individualizatuak jakinarazpen edo komunikazio batean edo gehiagotan batu daitezke, baldin eta eraginkortasunagatik hala komeni bada eta teknikoki posiblea bada.

Esleitutako katastro-balioen jakinarazpenean nahikoa arrazoitu behar da haien zenbatekoa, eta, horretarako, adierazi behar da zein balio-txostenetan oinarrituta dauden, eta, halakorik badago, hauek adierazi behar dira: lurzoriaren eta eraikuntzaren oinarritzko moduluak, aplikatutako koefiziente zuzentzaileen identifikazioa eta higiezinok katastroaren ondorioetarako duten azalera.

Ezarritako katastro-balioa errekurritu daiteke, aukerako berraztertze- errekurtsioa jarritz edo, zuzenean, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztuz, jakinarazpenaren egunaren biharamunetan hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Orobat, aldizka kobratzen diren erreziboak direnean, zerga borondatez ordaintzeko epearen barruan errekurritu daiteke katastro- balio hori, edo epe hori bukatu eta biharamunetik

zenbatutako hilabeteko epearen barruan; Administrazioak egindako likidazioak direnean, berriz, haiek jakinarazten diren egunaren biharamunean hasi eta hilabeteko epearen barruan errekurritu daitezke, beti ere balioek ondorioak sortuko dituzten urtekitaldian bada.

14. artikulua. Katastro-balioa aldatzeko prozedura.

Bat. Hirigintzako plangintza edo bestelako inguruabarren bat dela bide argi agertzen bada udalerriko ondasun higiezin gehienen katastro-balioaren eta merkatu-balioaren artean diferentzia handia dagoela, katastro-balioak aldatuko dira, ofizioz zein kasuan kasuko toki-erakundeak eskatuta.

Aldatu beharra dagoenean, 13. artikuluan ezarritako prozedura berari jarraituko zaio: balio-txosten berriak prestatu eta onetsi beharko dira.

Bi. Balio-diferentziak udalerriko eremu, azpiero, poligono ez-jarraitu, plangintzaren garapen-edo burutzapen-eremu edo finka batean zein batzuetan soilik agertzen badira, ez da egongo balio-txosten berriak onetsi beharrik.

Hala gertatzen denean, lehendik dauden balio-txostenak aldatuko dira, eta ukituriko udalak edo udalek haiei buruzko txosten ez-loteslea egin beharko dute, foru arau honetako 13. artikuluko 2. zenbakian ezarri bezala.

Bai beste lurzoru batzuk zergapean jartzea, bai lur batzuen sailkapena eta kalifikazioa aldatzea, bai hirigintzako erabilerak edo aprobetxamenduak aldatzea balio-txostenaren aldaketatzat hartuko dira, berariazko arauetan ezarritakoari lotuz.

Hala aldatzen diren katastro-balioak banaka jakinarazi behar zaizkie subjektu pasiboei, haien zenbatekoa nahikoa arrazoituta, eta foru arau honen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Katastro-balio berriek jakinarazi eta hurrengo urtean sortuko dituzte ondorioak.

Norbanakoak aldi berean aurkaratu ditzake balio-txostenen aldaketa eta katastro-balio berria; horretarako, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dezake edo, bestela, zuzenean erreklamazio ekonomiko-administratiboa. Horretarako, balio-txostenak interesatuen eskura izango dira hilabetez katastro-bulegoetan.

15. artikulua. Balio-ponentziak balizko berezietan.

Bat. Bi udalerritan edo gehiagotan dauden ondasun higiezonei dagokienez, haien balioa bi eratarik kalkula daiteke: higiezin bakoitzari ponentzia bakarrik aplikatuz edo erabileraren eta xedearen arabera homogeneoak diren higiezin guztiei ponentzia bera aplikatuz.

Bi. Halaber, konurbazio bateko udalerririk guztietako higiezinak udalaz gairik ponentzia aplikatuz ere balora daitezke.

16. artikulua. Balioztatzeko irizpide teknikoak.

Hiri-ondasun higiezinaren katastro-balioa ezartzeko, kontuan hartuko dira hiri-ondasun higiezinaren balioa zehazteko dauden arau teknikoak.

17. artikulua. Kuotak.

Bat. Zerga honen kuota osoa zerga-oinarriari hurrengo artikuluan aipatuko den karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

Bi. Kuota likidua kalkulatzeko, kuota osotik foru arau honetako 19. artikuluan ezarritako hoberiak kendu behar dira, halakorik aplikatzerik badago.

18. artikulua. Karga-tasa

Bat. Gutxieneko karga-tasa ehuneko 0,02 izango da hiri-ondasun higiezinak direnean, eta ehuneko 0,3, berriz, landa-ondasunak direnean; gehieneko karga-tasa ehuneko 0,3 izango da hiri-ondasunen kasuan, eta ehuneko 1,5 landa-ondasunen kasuan.

Lehenengo xedapen iragankorra._ Katastroa berrikusteko prozedura martxan duten udalerrietan prozedura hori ez bada amaituko 13. artikuluan ezartzen diren epeetan, eta, horrenbestez, katastro-balio berriak ez badira 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen jarriko indarrean, orduan udalek 18. artikulua aplikatuko dute, 2012ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen idazketaren arabera ("Karga-tasa ehuneko 0,4 izango da hiri ondasunak direnean, eta ehuneko 0,3, berriz, landa ondasunak direnean; gehieneko karga-tasa ehuneko 3 izango da hiri ondasunen kasuan eta ehuneko 1,5 landa ondasunen kasuan. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoaren emaitzako mugak errespetatzen dituztela, udalek karga-tasa desberdinak ezar ditzakete hirilurreko higiezinatarako (egoitza erabilerakoak salbu) katastroari buruzko arauetan eraikuntzen baloraziorako ezarritako erabilerak aintzat hartuta.)

Bi. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, udalek karga-tasa ezberdinak ezar ditzakete hiri-erabileretarako, baina muga hauen barruan betiere:

- Gehienez ere ehuneko 1,5 industria-erabileretarako (I),
- Gehienez ere ehuneko 0,8, baina tasa bakarrarekin, gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako (V) eta beste erabileretarako (Y) izan ezik.

Aurreko artikuluan xedatzen denerako, hiri-erabilerak zehazterakoan kontuan hartu beharko da hiri-ondasun higiezinak balioztatzeari buruz katastroko araudian ezartzen dena.

Hiru. Aurreko zenbakietan xedatutakoa aplikatuz ateratzen diren mugak errespetatzen dituztela, udalek karga-tasa handiagoak ezar ditzakete hiri-erabilera bakoitzerako higiezinak baloratzeari buruz katastroko araudian ezartzen diren erabilerak aintzat hartuta. Higiezin batek erabilera bat baino gehiago badu, eraikin edo barrunbe nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko zaio. Tasa horiek gehienez ere udalerrian, erabilera bakoitzeko, katastro-baliorik handiena duten hiri-lurreko ondasun higiezinaren %10ari aplikatu ahal zaizkio. Horretarako, Zergari buruzko ordenantzak erabilera guztien edo erabilera bakoitzaren balio-atalasea ezarriko du; hortik aurrera, tasa gehituak aplikatuko dira.

Lau. Baldin eta aparteko kasuetan katastro-balioak hainbat aldiz jarraian finkatzen edo berrikusten badira edo udalerriko higiezin askoren katastro-balioak aldatzen badira, udalak karga-tasa bereziak ezarri ahal izango ditu katastro-balio berria duten ondasunetarako nahiz ez dutenetarako.

Bost. Udalek urtero alda ditzakete karga-tasak. Baina tasa horiek kasuan kasuko kuotak aplikatu behar diren urteko abenduaren 31 baino lehen onetsi eta argitaratu behar dira.

Zerga hau Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen duen udalerrietan, udalak gehienez lau hamartarrekin finkatuko ditu kargatasak.

Sei. Katastroa finkatzeko, berrikusteko edo aldatzeko prozedura baten ondoriozko katastro-balio berriak onartzen dituztela-eta, kargatasak berriak adosten dituzten udalek behin-behinean onartu behar dituzte tasa horiek, eta Katastro eta Balorazio Zerbitzuari jakinarazi behar dizkiote, balio berrien jakinarazpenak egiten hasi aurretik eta, edozelan ere, balio berriek ondorioak sortuko dituzten urtearen aurre-aurreko urteko uztailaren 1a baino lehen.

Aurreko lerroaldean ezartzen denerako, katastro-balio berriak jasotzen dituen zerrenda denbora nahikoarekin helarazi behar die Katastro eta Balorazio Zerbitzuak udalei.

19. artikulua. Hobariak.

Bat. Ordenantza fiskaletan jarraian azalduko diren hobarien funtsezko eta erazko alderdiak zehaztuko dira, eta zein kasutan batera daitezkeen beste zerga-hobari batzuekin:

- a) Obra berriak zein berriztat har daitezkeen zaharberrikuntza obrak egiten dituzten urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sus-tapeneko enpresen jardueraren xede diren higiezinaren gaineko zerga-kuota garbian % 50 eta 90 bitarteko hobaria aplikatu ahal da, baldin eta interesdunak obra berriaren alta-adierazpenarekin batera eskatzen badu eta higiezina ibilgetuko ondasuna ez bada.

Udalak horretaz ezer erabakitzen ez bada, higiezin horiei idatz-zati hone-tan ezarritako hobarietatik handiena aplikatuko zaio. Obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da hobari hau, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egi-ten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luze-agoaizan.

- b) Babes publikoko etxebizitzaren eta, Euskal Autonomia Erki-degoko arauen arabera, horiekin berdinetan ahal diren etxebizitzek %50eko hobari aplikatuko ahalko diete zergarenkuota osoari, behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesatuak eskatuz geroemango da; aipatu epealdia (hiru zergaldiak) edozein unetan aplikatu ahal izango da, eta beti ere eskatu eta hurrengo zergaldian izango ditu ondoreak.

Udalek Zergaren kuota osoaren %50a arteko hobaria ezarri ahal izango dute higiezin horietarako, aurreko paragrafoko epealdia igarotakoan. Hobariaren iraupena eta urteko zenbatekoa ordenantza fiskalean zehaztuko dira.

- c) nekazaritzako kooperatiben eta lurren baterako ustiapenerako kooperatiben lantalurreko ondasunen gaineko Zergaren kuota osoan %95eko hobaria aplikatu ahal izango; horretarako Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan ezarritakoa hartu behar da aintzat.

Bi. Ordenantza fiskalean Zergaren kuota osoaren %90era arteko hobaria ezarri ahal izango da legeriaren eta hirigintzako planen arabera nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza edo arrantzaren arloko edo antzeko arloren bateko oinarritzako jarduerak nagusi izateagatik bereizita dauden eta udalerriko herrigune sendotueta baino zerbitzu gutxiago dituzten herriguneetan hirilurreko ondasunetarako, baldin eta herrigune horietako inguruabar ekonomikoak aintzat hartuz babes berezia behar dutela uste bada.

Hobari hau aplikatzeko herriguneek, aldeek edo eremuek izan behar dituen ezaugarri bereziak eta horretarako izan behar diren eraikuntzak eta lurren erabilerak ordenantza fiskalean ezarriko dira, bai eta hobariaren iraupena, urteko zenbatekoa eta erazko eta funtsezko gainerako alderdi guztiak ere.

Hiru. Ordenantza fiskalean Zergaren kuota osoaren %90era arteko hobaria ezarri ahal izango da familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat. Ordenantzan hobariak ukitzen dituen ondasun higiezinaren motak eta ezaugarriak, beraren iraupena, urteko zenbatekoa eta erazko eta funtsezko gainerako alderdiak ezarri behar dira, eta beste zerga-onura batzuekin zein kasutan batera daitezkeen argitu behar da.

Lau. Ordenantza fiskalean Zergaren kuotaren %100era arteko hobaria ezarri ahal izango da monumentu multzoetan, alde historikoetan edo eremu kulturetan dauden ondasunetarako; horretarako higiezinaren egitura, fatxada, gainaldea eta antzeko elementu guztiak bere hartan mantendu beharra ezarri egon behar da.

Aurreko idatz-zatian aipatutako hobariaren gainerako alderdiak, funtsezkoak zein erazkoak, ordenantza fiskalean araupetuko dira.

Bost. Udalek, ordenantza bidez, Zergaren kuota osoaren %90era arteko hobaria araupetu ahal izango dute erabilera espezializatua osatzen duten ondasun higiezinarako, baldin eta lurzorua, eraikina, instalazioak eta hobekuntza eta hirigintza obrak izaera bakarrekoak izanda eta beraien jarduerarako behin betiko lotuta egonda katastro ondorenetarako ondasun higiezin bakartzat hartu ahal badira.

Hobari honen iraupena, urteko zenbatekoa eta gainerako alderdiak, funtsezkoak zein erazkoak, ordenantza fiskalean zehaztuko dira.

Sei. Zerga ordenantzetan Zergaren kuota osoaren %50eko gehieneko hobaria ezar daiteke eguzkiaren energia beroa edo elektrizitatea sortzeko sistemak instalatzen diren ondasun higiezinatarako. Hobari hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea.

Zazpi. Zazpi.Zerga ordenantzek kuota osoaren %50a artekohobaria arautu ahalko dute Eusko Jaurlaritzaren 316/2002 Dekretuak, abenduaren 30ekoak, araututako "Etxebizitza Hutsen Programaren" arloan edo aldundien zein udalen beste programa batzuen arloan lagatzen diren higiezin zergaren kuotan.

Zortzi. Udalek ondasun higiezin gainerako zergaren kuota osoaren ehuneko 99era arteko hobaria ezarri ahal izango dute hondamendi naturalak jasandako eremuetan dauden higiezinatarako.

20. artikulua. Sortzapena eta zergaldia.

Bat. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

Bi. Zergaldia egutegiko urtea da.

21. artikulua. Aldakuntza fisiko, juridiko edo ekonomikoak.

Kargapeko higiezinetan gertatzen diren aldakuntza fisikoek, juridikoek edo ekonomikoek hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak; ez da egongo administrazio-egintzaren jakinarazpena bidali beharrik.

22. artikulua. Errolda.

Bat. Zerga kudeatzeko errolda egingo da urtero udalerrri guztietan. Errolda horretan ondasun higiezin, subjektu pasiboen eta katastroko balioen zentsuak egingo dira, landa-lurrekoak eta hirilurrekoak bereizita. Errolda egitea Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionean, udalen esku egongo da, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute erroldarako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio datu batzuk eskatuko dituztenak izaera pertsonaleko datuak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko.

Bi. Zergaren erroldan Ondasun Higiezin gainerako Zergaren kargapean dauden hirilurreko higiezin guztien zenbaki finakoak agertu behar dira.

Hiru. Ondasun Higiezin gainerako Zergaren ordainagiritan urteko erroldako datuak agertu behar dira.

Lau. Errolda jendaurrean jartzeko epea amaituta eta errekursoak eta/edo erreklamazioak ebatzita, udalek ordainagiriak prestatuko dituzte eta ordainagiritan jasoko diren likidazioak biltzen dituzten kobrantza-zerrendak onartuko dituzte; hala ere, beti egongo da aukera Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauko 8. artikuluan adierazten diren lankidetzak-formulak erabiltzeko.

Bost. Bizkaiko Foru Aldundiak ordainagiriak egin eta kobrantza- zerrendak onesteko eginkizuna eskuordetzaren bidez bere gain hartuta daukanean, zerrendak udalen esku egongo dira, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute zerrendetarako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio-datu batzuk eskatuko dituztenak izaera pertsonaleko datuak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko.

23. artikulua. Higiezinaren aldaketaren berri eman beharra.

Bat. Subjektu pasiboek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu behar dizkiote zerga honen kargapean dauden ondasunak dauden udalari arauz ezartzen diren epeetan:

- a) Ondasuna eraikuntza berri bada, alta aitortzea egin behar dute.
- b) Zerga honen kargapean dauden ondasunak eskualdatzen direnean, eskuratzailerak altaren aitortzea aurkeztu beharko du, eskualdatzearen zioa azaltzen duen agiriarekin batera; era berean, eskualdatzailerak bajaren aitortzea aurkeztu beharko du, eta bertan adieraziko dira eskuratzaileraren izena eta egoitza, ondasunen mugak eta kokaera, eskualdatzearen data eta eskualdatzearen kontzeptua.

Eskualdatzea «mortis causa» egintzaren baten zioz egiten bada, ezarriko den epea Oinordetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik aurrera zenbatuko da, eta jaraunseak egin beharko ditu bi aitortpenak, altarena eta bajarena.

- c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldarazpen fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz gerta litezkeen aldaketa guztien aitortzea egin beharko da.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako aitortzea ez aurkeztea, edo ezarritako epeaz kanpo aurkeztea, zergen arloko arau-haustea izango da eta 3.000 euroko isun finkoarekin zehatuko da.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 193. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hiru. Subjektu pasiboek aurreko 1. idatz-zatian aipatu diren eskualdaketa edo aldarazpen guztien aitortzea egin behar dute. Hala, bada, foru arau honetan araupetutako eran ondasun higiezinaren aldarazpenak agertarazteko agiri publiko edo pribatuak formalizatzen direnean, edo aldarazpenok direla-eta auzibideak nahiz administrazio-prozedurak instruitzen direnean, subjektu pasiboek frogatu egin behar dute ondasun higiezinak badutela katastroko identifikazioa, hau da, katastroko zenbaki finkoa, hirilurreko ondasunak direnean, edo poligonoaren eta lurzatiaren katastroko aipamena, landalurreko ondasunak direnean. Egiaztapen hori baimena emateko eta inskripzioak edo instrukzioak egiteko eskumena daukaten notario, erregistratzaile edo epai eta administrazio organo edo agintarien aurrean egin behar da, arauz ezarritako moduan.

24. artikulua. Katastro-datuak.

Bat. Higiezinaren Katastroetan gerta liteke datuak sartu, kendu edo aldatzea, katastroa berrikustearen ondorioz, edo katastro- balioak finkatu, berrikusi zein aldatzearen ondorioz, edo ikuskaritza- jarduketaren ondorioz, edo alta eta komunikazioak formalizatzeko jarduketaren ondorioz; bada, datuak sartu, kendu edo aldatzeak administrazio-egintzat hartuko dira, eta zergaren eroldaren aldaketa ekarriko dute. Higiezinaren Katastroetako datuekin zerikusia duen aldaketaren bat egiten bada Erroldan, katastroak aldeztu aurretik aldatu beharko dira.

Bi. Katastro-datuetan zerbait aldatuz gero, zergaren subjektu pasiboari jakinarazi behar zaio, administrazio-egintzak jakinarazteko irizpide orokorrekin bat.

Hiru. Katastroa kudeatzen duen organoa ohartzen bada katastro- datuak eta higiezinaren benetako egoera ez datozela bat, eta ikusten bada diferentzia hori ez dela gertatu subjektu pasiboak ez dituelako aurkeztu aurreko artikuluan ezarritako aitortpenak, bada, interesatuari jakinaraziko dio eta hamabost eguneko epea emango dio bere eskubiderako komenigarritzat jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Epe hori igarotakoan, alegazioak aztertuko ditu katastroa kudeatzen duen organoak, eta ofizioz aldatuko ditu katastro-datuak; gero, egindako aldaketa guztiak subjektu pasiboari jakinaraziko dizkio, administrazio-egintzak jakinarazteko irizpide orokorrekin bat. Aldaketek hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak Zergaren erroldan.

Lau. Hauek hartuko dira administrazio-komunikaziotzat:

- Notarioek eta jabetza-erregistratzaileek maiatzaren 22ko 77/1990 Foru Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri bidaltzen dituztenak.
- Maiatzaren 22ko 77/1990 Foru Dekretuaren 32.2 artikuluan xedatutakoa betez katastroaren kudeaketa agintzen zaien organoek bidaltzen dituztenak.
- Udalek, foru sailek edo arauak ezarritako gainerako herriadministrazioek hirigintza-kudeaketako, -plangintzako edo -diziplinako edo baterakuntzako egintzei buruz formalizatzen dituztenak.

Bost. Norbanakoek artikulua honetako lehen, bigarren eta hirugarren zenbakietan deskribatutako egintzak aurkara ditzakete; horretarako, aukerako berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko- administratiboa jar dezakete, zein bere epearen barruan.

25. artikulua. Zergaren kudeaketaren eskumena.

Bat. Ordainerazteko ahalmena, kudeatzekoa, likidatzekoa, ikuskatzekoa eta biltzekoa, hala borondatezko aldiak nola premiamendu bidean, Zergaren kargapeko ondasunak dauden udalerriko udalari dagozkio, baita Zergaren kudeaketarako emandako egintzak berrikusteko ahalmena ere.

Bi. Hain zuzen, udalei dagozkie salbuespenak eta hobariak ematea eta ukatzea, zerga-zorrak zehazteko likidazioak egitea, kobrantzako agiriak ematea, zor izan ez diren sarrerak itzultzeko espedienteak ebaztea, egintza horien aurka aurkezten diren errekurtsoak ebaztea, eta zergadunei paragrafo honetan bildutako gaiei buruzko informazioa ematea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetan araupetutako salbuespen eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, beti ere, eskudun udalak emandako ebazpena helarazi beharko zaio Foru Aldundiari.

Hiru. Udalek Bizkaiko Foru Aldundiari eskuordetu ahal izango dizkiote aurreko bi zenbakietan azaldutako eginkizun batzuk edo guztiak, araz ezartzen den bezala.

Lau. Zergaren ordainketa errazteko, udalek ekitaldian zehar zatika dezakete; hala eginez gero, ez dute eskatuko ez berandutza-korriturik, ez bermerik jartzetik.

Bost. Udalek kobrantza-agiri bakarrean bil ditzakete subjektu pasibo beraren zerga-kuota guztiak beraren landalurreko ondasun guztiak udalerrri berean daudenean.

26. artikulua. Katastroaren eta erroldaren kudeaketaren eskumena.

Bat. Errolda prestatzea eta luraren mugaketaren aurreko balio-ponentziak prestatzea eta onestea Bizkaiko Foru Aldundiaren ez beste inoren eskumenekoak dira, bai eta katastro-balioak finkatzea, berrikustea, aldatzea eta eguneratzea ere.

Bi. Hala ere, aurreko eginkizun horietako batzuk udalei eskuordetu ahal dizkie Bizkaiko Foru Aldundiak; hala gertatzen bada, arau bidez zehaztuko da.

Hiru. Higiezinaren katastroak prestatzea, artatzea, berritzea, berrikustea eta berezko dituzten gainerako eginkizun guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren ez beste inoren eskumenekoak dira eta Katastro eta Balorazio Zerbitzuak egingo ditu, berak zuzenean zein udalekin edo bestelako toki izakiekin lankidetzat-hitzarmenak sinatuz; hitzarmenak arau bidez zehaztuko dira.

Lau. Katastroak Bizkaiko Foru Aldundiak ikuskatu ditu; nolahi ere, udalekin lankidetzan aritzeko formulak ezar ditzake; hala gertatzen bada, arau bidez zehaztuko dira.

27. artikulua. Informazioa eman beharra.

...

28. artikulua. Katastroari laguntzeko betebeharrak orokorrak.

Bat. Pertsona natural zein juridiko guztiek, publikoek zein pribatuek, katastroari lagundu behar diote, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 112. artikuluan ezarri den bezala. Hori dela eta, beste pertsona guztiekin dituen erlazio ekonomiko, lan-erlazio edo finantza-erlazio guztietan biltzen dituen datu, txosten eta aurrekarietatik zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak jakinarazi behar dizkio, hau da, Higiezinaren Katastroko datu fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak eratzeko, mantentzeko eta eguneratzeko baliagarri izan daitezkeenak.

Bi. Herri administrazioek, oro har, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 113. artikuluan aipatutako gainerako erakundeek katastroa sortzeko eta mantentzeko baliagarri izan daitezkeen datu eta aurrerakin guztien berri eman behar Katastro Zerbitzuari, aurrean aipatutako artikuluan ezarri den bezala, berariazko agindeia egiten zaienean edo xedapen orokorrek hala eskatzen dutenean.

29. artikulua. Higiezinaren Foru Katastroaren oinarritzko printzipioak.

Bat. Tributuen orokortasun eta zuzentasunaren eta baliabide publikoen banaketa bidezkoaren printzipioen zerbitzuan egongo da katastroko informazioa. Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak elkarlanean jardungo du administrazio publikoekin, epaitegi eta auzitegiekin eta jabetza-erregistroekin, bakoitzak bere eginkizun eta eskumenak ondo bete ditzan.

Bi. Era berean informazio hori eskuragarri egongo da, foru arau honetan aurreikusitako moduan, lurraldeari buruzko informazioa eskatzen duten herritarrentzat eta politika publikoetarako.

30. artikulua. Katastroko mapak eskuratzea.

Bat. Katastroko mapak herritarren eta enpresen eskura egongo dira, eta administrazio nahiz erakunde publikoen eskura, informazioa eskatzen dutenean lurraldeari buruz edo ondasun higiezin jakinei buruz, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako ezartzen diren zerbitzuen bitartez.

Bi. Erregelamenduz zehatuko dira formatuak, eskuratzeko eta hornitzeko baldintzak eta zerbitzu horiek emateko beharrezkoak diren gainerako ezaugarriak.

31. artikulua. Katastroko informazioa eskuratzea.

Bat. Katastroko informazioa eskuratzearen ingurukoa datu pertsonalen babesari buruzko legeriaren pean egongo da.

Gainera, ezartzen diren katastro-tasak ordainaraziko zaizkie informazio hori eskuratzeko dutenei.

Bi. Katastroko informazio grafikoa eta alfanumerikoa ematearen eta erabiltzearen ingurukoa jabetza intelektualari buruzko legerian xedatutakoaren pean egongo da. Egile-eskubideak betiere Bizkaiko Foru Aldundiarenak izango dira.

Hiru. Bizkaiko Foru Aldundiak katastroko informazioa eskuratzeko baimena ukatu ahal izango du modu arrazoituan, irizten badio informazio hori erabiltzeak kalte larria eragin diezaiekeela bere interesei edo bere eginkizunen betetzeari, edo zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eraginkortasuna eragoz dezakeela; edota, oro har, interes publikoko arrazoiak lehenesten baditu.

Lau. Eskura dauden formatuetan bakarrik emango da katastroko informazioa. Ahal den guztietan teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliko dira.

32. artikulua. Datu babestuak.

Foru arau honen 29. artikulutik 33.era bitartekoetan xedatutakoaren ondorioetarako, datu babestuzat joko dira Higiezinaren Foru Katastroan titular gisa inskribaturik daudenen izena, abizenak, sozietatearen izena, identifikazio-kodea eta helbidea.

33. artikulua. Informazioa eskuratzeko baldintza orokorrak.

Bat. Edonork eskuratu ahal izango du bere titulartasuneko higiezinaren gaineko informazioa, bai eta Higiezinaren Foru Katastroko babestu gabeko datuen gaineko informazioa ere.

Bi. Horretaz gainera, honako hauek katastroko informazio babestua eskuratu ahal izango dute ukitutakoaren baimenik gabe:

Bizkaiko Foru Aldundiko organoek, gainerako foru aldundietakoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoek, bai eta gainerako lurralde administrazio publikoetako organoek ere; Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek eta zerbitzu komunak, eskumen, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioen araberrako mugekin.

Ikerketarako parlamentu-batzordeek, Arartekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta antzeko eginkizunak dituzten erakundeek, araubide erkidekoak nahiz autonomikoak izan.

Epaileek, auzitegiek eta fiskaltzak.

Erakunde, korporazio eta entitate publikoek, euren eginkizun publikoak betetzeko, betiere zenbaki honetako a) letran eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Onura publikoaren edo gizarte interesaren ziozko desjabetzeen onuradun diren erakundeek eta gainerako onuradunek, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legean eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudia onesten duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuan ezarritako moduan.

Hiru. Aurreko zenbakian ezarritako kasuetatik kanpo katastroko datu babestuak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da ukitutakoak baimena ematea beren-beregi eta idatziz, edo lege zein foru arauen batek esatea ez dagoela baimen horren beharrik, edo informazioa eskatzeko bidezko eta zuzeneko interesa egotea, kasu hauetarikoren batean:

Notarioek eta jabetzaren erregistratzaileek finkak identifikatzeko, eta, bereziki, Katastroaren kudeaketarako behin-behineko arauak onesten dituen maiatzaren 22ko 77/1990 Foru Dekretuaren V. kapituluan ezarritakoa betetzeko.

Higiezinaren Foru Katastroan lurzati mugakideen titular gisa ageri direnek lurzati mugakide horiek identifikatzeko.

Higiezinaren Foru Katastroan inskribatutako ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealeen edo errentamendu nahiz apartzeriaren titularrek eta titularkideek, higiezin horiei dagokienez.

Jaraunse eta oinordekoek, Higiezinaren Foru Katastroan inskribatuta dagoen kausatzaile edo eskualdatzailearen ondasun higiezinari dagokienez.

Higiezinaren Foru Katastroan hirigintzako jarduketa-eremu bateko lurzati baten titular gisa ageri direnek jarduketa-eremu horretako beste lurzati batzuk identifikatu ahal izateko.

Lau. Aurreko letretan azaldutako inguruabarrak direla bide informazio babestua eskuratzeko dutenek, betiere, baimendutako xederako soil-soilik erabili beharko dute informazio hori. Datu pertsonalen babesari buruzko legerian eta, datu babestuei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako betebeharrak eta erantzukizunaren araubide juridikoaren pean egongo dira.

Bost. Artikulu honetan araututako eskubidea, hau da, katastroko datuak eskuratzeko eskubidea, kasu bakoitzean erabili ahal izateko bete behar diren baldintzak eta betekizunak erregelamenduz arautzen ez diren bitartean, aplikagarria izango da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketari buruzko Araudiak, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, gai horri buruz xedatutakoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.

Udal mugarteren bat aldatzen bada, harik eta beste balio-ponentzia bat onetsi edo dagoena aldatu arte katastro-balioak ezartzeko araubide zaharrak bere hartan iraungo du udal mugartez aldatu diren ondasun higieziei dagokienez. Horrelako kasuetan udalek lehengo udalerrian indarrean egon den karga-tasa aplikatuko diete udal mugartez aldatutako ondasun higieziei, beste bat ezartzea erabaki ezean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauko 16. artikuluan ezarri denaren arabera.

Bigarrena.

...

Hirugarrena.

...

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

Katastroa berrikusteko prozedura martxan duten udalerrietako batzuetan prozedura hori ez bada amaituko 13. artikuluan ezartzen diren epeetan, eta, horrenbestez, katastro-balio berriak ez badira 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen jarriko indarrean, orduan udalek 18. artikulua aplikatuko dute, 2012ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen idazketaren arabera.

Bigarrena.

Bat. Udalerrian katastroa berrikusteko prozedura bukatu izan arren 2012ko uztailaren 1a baino lehen hirilur ondasunen gaineko karga-tasa berriak onartu gabe dituzten udalek berez eta besterik gabe eta zuzenean aplikatuko dituzte hurrengo formula honetatik ateratzen diren karga-tasak:

$$tgn = PC(n-1) * tg(n-1) / PC(n)$$

Hurrengoaren arabera:

PC(n-1) balio-txostenaren urteko hirilur ondasunen Katastro Erroldaren zenbatekoa da.

tg(n-1) balio-txostenaren urtean udal bakoitzean indarrean den karga-tasa da.

PC(n), onarturiko balio-txosten berriak aplikatuz eratorritako hirilur ondasunen Katastro Erroldaren zenbatekoa da, PC (n-1)eko ondasunak, eta horiek bakarrik, kontutan harturik.

Bi. Hiri-erabileren arabera berezitutako hiru karga-tasak ezartzeko helburuarekin, Foru Arau honetako 18. artikuluan xedatutako muga barnean, formula hori artikulu horretan zehazturiko hiri-erabilera bakoitzerako aplikatuko da.

Hiru. Formula horretatik ateratako karga-tasak indarrean izango dira harik eta eragindako udalek tasa berriak onartu arte.

Lau. Formula hori aplikatuz ateratako karga-tasak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko ditu udal bakoitzak, eta horien berri emango diote Bizkaiko Foru Aldundiari.

Hirugarrena

Katastro-balio berriak indarreratu eta lehen hiru urteetan, ohiko etxebizitzari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren artean eta katastro-balio berria indarreratu aurreko urtekitaldiko kuotaren artean dagoen aldearen hobari bat arautu ahal izango dute zerga-ordenantzak, Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen alde.

Sarrerak Bermatzeko Errentaren ganeko betekizuna izango da zergaduna errenta horren jasole izatea borondatezko aldirian zerga ordaintzeko epea hasten den lehen egunean eta hori baino lehenagoko sei hilabeteetan.

Hobari hori berriaz eskatu beharko da eta, behin eskaria eginda, behar denean emango da. Hobari honen gainontzeko alderdi sustantiboak eta formalak zerga-ordenantzaz arautuko dira.

INDARGABETZE-XEDAPENA

1. Honako Foru Arau hau indarreko bihurtuz gero, berean ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarririk gabe utziko dira.
2. Honako Foru Arau hau Bizkaiko Herrialdeko Egunkarian argitaratu eta biharamonetik bihurtuko da indarreko.

AZKEN XEDAPENA

1. Foru Aldundiari baimena ematen zaio, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.
2. Honako Foru Arau hau Bizkaiko Herrialdeko Egunkarian argitaratu eta biharamonetik bihurtuko da indarreko.

Bilbon, 1989.eko ekainaren 30ean,

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria,.

ANTON AURRE Y ELORRIETA.

Bizkaiko Batzar Nagusietako lehenengo idazkaria,

ROBERTO OTXANDIO IZAGIRRE.